

PEDROTXO ETA JULIO



XABIER

DOÑUA: Iparragirrena

Pedrotxo eta Julio ziraden
"Oarso"ren lankideak
Makiñatxobat idaz lanetan
bereizenak azalduak
Julioentzat kirolak
Pedrotxontzak mendiak
Goiburuak biontzako
Bertso auexek izango dira
lagun auek aipatzeko.

Ogeita bost garren alea da
aurtengo "Oarso"rena
Bañan biontzat joan zan urtean
izan zenuten azkena
Zuentzat oroimena
emen azaltzen dena
Aurtengo ale onetan
Utzi dezuten utsune ori
arkituko degu bertan.

Errenteria izan zenuten
eredu zuen lanetan
Jaiotza ere biok izanik
erriko kale berean
Beti aldamenean
txikitan jolasean
Izan zenuten bizitza
Eta biontzat urte berean
etorririk eriotza.

Gure erriak maitekorra du
Magdalenaren eguna
Egun orretan Pedrotxo joan zan
gu utzirikan zerura
Jainkoaren aldera
festik ederrenera
Bertan mendizaleakin
Zeruko gallur gorengonera
igotzeko elkarrekin.

Izadiaren laguna ziñan
zure errian maitale
Bañan ixilka ere ziñaden
margo irudi egille
Erriko zenbat kale
irudietan daude
Maitetasunez egiñak
Eskertzekoa dauka erriak
egin zendun lan ixillak.

Berri emaille ziñaden Julio
erri ta kirolentzako
egunkari eta irrati bidez
gertaerak azaltzeko
Berriarentzat presto
jendeak jakiteko
Erriaren gora berak
Berauentzako egin zenitun
zure lanik ederrenak.

Futbol zelaian egin zenuen
zure azken idaz lana
Berau egiteko asmoekin
joan ziñaden Lartzabala
Eriozaren deya
iritxi zan zugana
Arratsalde itun artan
Zure lan ura bukatu gabe
gelditu zitzaizun bertan.

Izan dezagun "Oarso"tarrak
zuengan gure oroitza
Eta egiñik goiko Jaunari
biotzez gure otoiitza
Izan zazute poza
eta berdin pakea
Biok zeru ederrean
Betiko atsedena izanik
Jaungoikoaren alboan.

1990.go Maiatzean.